

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzuari ekiteko ezinbestekoak diren baliabideak edukiko ditugu, gure proiektuak arrakasta izateko eta porrota ekiditeko. Errekurtso hauek tankera ezberdinekoak izango dira, fisikoak, finantziarioak eta intelektualak.

Hasteko, baliabide finantzieroei ekingo diegu. Proiektu honek, beste guztiak bezala, dirua behar du hasierako kostuak ordaintzeko eta gure zerbitzua gauzatzeko. Horregatik, udaletxearen laguntza lortuko dugu gure proiektua salduz. Hori gutxi balitz bezala, gure proiektu honi hasiera bat emateko bakoitzak 500€ jarriko genituzke, hasieko kostuei aurre egiteko.

Bestetik, kide bakoitzak proiektuari gauza asko eskaintzen dizkio, hauei baliabide intelektualak deritze. Gure baliabide garrantzitsuenak dira hauek, izan ere, hasieran esan dugun moduan, giro lasai eta eroso izatea nahi dugu, hau da, konfiantza eta gertutasuna lortuko dugu gure bezeroengandik, gurasoengandik.



Hiru taldekideok antzekoak diren baliabide intelektualak ditugun arren, Ferdaws oso pertsona irekia da, oso ona da lagun berriak egiten, eta konfiantza lhasiera-hasieratik transmititzen du. Ondorioz, bide batez, gurasoei seguratsuna transmitituko die.

Saioa aldiz oso abila da teknologiako eta ekonomiako gaitan, asko interesatzen zaizkioi gai informatiko eta administrazio

lanak, denbora librea duenean hainbat ikastaro egin izan ditu.

Bukatzeko, Garazi oso pertsona lasaia da, eta esperientzia du jendaurrean hitz egiten. Asko gustatzen zaio jendearekin elkarlanean aritzea eta bere gaitasun nabarmenetako bat inprobisazioa da.

Hala ere, azalpenak ematerako orduan, gogoan izanik denok jasan ditugula gure nerabezaroan zehar esperientzia desatseginak, honi buruz emandako azalpenak gure alde erabil ditzakegun tresna indartsuak direla iruditzen zaigu. Taldekideon artean giro atsegin eta eroso dago, eta horrek segurtasun are gehiago transmititzen du. Horrez gain, gue esperientzia propioaz hitz egitean, gure baliabide indarsu hau martxan jartzen dugu, eta hau hiruron artean soilik lortzen dugu.

Baliabide fisikoei dagokionez, gure zerbitzuaren finantzaketa arloa, saioen prestakuntza eta hainbat gauza gehiago aurrera eramateko lokal bat beharko dugu. Gure lokala, UGGASA-k ahalbidetzea ideia paregabea iruditzen zaigu, honek hileroko 90€-ren truke Wifi-a, eta elektrizitatea eskaintzen dizkigu. Hala ere, lokal barruko altzariak geure kabuz erosi beharko ditugu, honek ez dizkigulako mahiak, aulkiak, ordenagailuak, proiektorea eta horrelako materialak dohaintzen. Beraz, UGGASA-k ahalbidetzen dizkigun materialez gain, geure lokala, angileentzat leku eroso, eta lan egiteko egokia izan dadin, geure kabuz ere material

batzuk erostea edo etxetik eramatea beharrezkoa izango da, mahaia, aulkiak eta armairu bat izango direnak.

Gure ustez, lehen aipatu ditugun hiru baliabide motak jarraitzea ezinbetsekoa da, hauek gure zerbitzuak arrakasta izatea ekar dezakelako, baita gurasoei beraien seme-alabak errezago ulertzaraztea ere. Eta hori gutxi balitz bezala, baliabide hauek jarraituz gero geure bezeroei segurtasun eta konfidantza gehiago eman diegula iruditzen zaigu.